Igandea

berria
2010eko urtarrilaren 10a

08 Bolivia Umeak meategiko zuloan
10 Elkarrizketa Modes Iraola
21 Enpresa historikoak Historiak ez irensteko borroka

Mundu bat Far Westen

Asun Garikanok liburu batean jaso du euskaldunek AEBetako Mendebalde Urrunean eginiko bidea.

Zortzi zaldiko garraio gurdia. Halakoetan gidari aritu ziren euskaldunak ere. R.W. HECK. HISTORIC PHOTO ARCHIVE

Urre pipitak

Ameriketako Estatu Batuetako Mendebalde Urrunera joan ziren euskal herritarren ibilbidea jaso du Asun Garikanok 'Far Westeko Euskal Herria' liburuan; euskaldunak, artzain ez ezik, urre bilatzaile, ostalari eta bertze ere izan zirela agerian utzi du, haiek utzitako testigantzen bitartez.

Edurne Elizondo

Ameriketako Estatu Batuetan, Mendebalde Urruneko Heriotzaren Ibarrean urre pipitak aurkitu zituzten euskal herritarrak bezala sentitu da Asun Garikano haien berri emateko agirien, argazkien eta narrazioen artean. Aurkitutako istorio bakoitza urre pipita baten gisakoa izan da idazlearentzat. Pipitak hartu, ongi garbitu, eta liburu bilakatutako erakusleihoan jarri ditu ikusgai. Eta irakurgai. Europako euskal herritarrek, Ameriketara joan ziren haien ondorengoek dioten bezala, itsasoaz bertzaldekoen berri jaso dezaten.

Far Westeko Euskal Herria izena du liburuak (Pamiela), eta bertan protagonistei eman die hitza egileak, protagonista horiek idatziz utzitako edo haien ondorengoek ahoz emandako testigantzen bitartez. Emaitza, Garikanoren hitzetan, orain arte ezezagun zen euskaldunen inguruko argazkia da. «Espero ez nituen euskaldunak aurkitu ditut», erran du egileak berak. Haien eskutik, Far Westen historia kontatu du Garikanok, hemengoen ikuspuntutik.

2007. urtean Nevadara joan zen Garikano. Asmo bat zuen: Euskal Herritik Amerikarako emigrazioa aztertzea. Ideia zehatz bat bazuen, halaber, buruan. Ameriketan artzain ibilitako euskaldunena. Nevadan egindako lanak, ordea, anitz zabaldu du Ameriketako euskaldunei buruz Garikanok zuen irudia. Lan horrek, gainera, Mendebalde Urruneko lurretan aritu ziren euskaldunen haritik tira egiteko aukera eman dio, eta esparru horretara mugatu du, azkenean, liburua. «Nevadan hasi nintzen inguruko gauzak ezagutzen, hango euskaldunak eta hango historia ezagutzen, eta iruditu zitzaidan hantxe, Far Westen, Mendebalde Urrunean, mundu bat bazegoela».

Tomas eta Maria Dominga Alkortaren argazkia, hainbat langilerekin. ALCORTA FAMLILY COLLECTION

Mundu hori bere orrietara eramateko, historialariek, hemengo eta hango euskaldunek eta bertze hainbatek idatzitakoa irakurtzeari ekin zion Garikanok lehendabizi. «Ageriko materiala zen hori». Baina topatu zuen hain agerikoa ez zena ere. «Euskaldunek utzitako testigantzak aurkitu nituen; bizpahiru orritakoak hainbat, luzeagoak beste zenbait; liburu osoak ere bai». Guztiak, urre pipiten gisakoak Garikanorentzat. «Sentsazio hori nuen artxiboetan bilatzen nuenean, urre pipitak aurkitzen nituen sentsazioa». Testigantzen, argazkien, bertsoen eta kanten itxura hartzen zuten pipitek.

Agiri batetik bertzera

Agiri batek bertze batera eraman zuen Garikano Nevadan. Informazio batetik bertzerako bidaia, hala ere, ez zen beti erraza izan. Mary Hunter Austin idazleak euskal artzainei buruz idatzitako poema aurkitzea, adibidez, kosta egin zitzaion Garikanori. «*When I am dead* (Hiltzen naizenean) izeneko poeman gaztetan ezagututako euskal artzainak aipatzen ditu idazleak. Bere antologietan eta liburuetan bilatu, baina ez nuen aurkitu. Azkenean, Kaliforniako antikuario baten etxean aurkitu nuen poema hori biltzen zuen liburu xumea». Kontrakoa ere gertatu zitzaion egileari Nevadan, bilatu gabe ere, euskaldunen arrastoa agertzea bere aurrean. «Euskaldunen inguruko kanta abestu zuen *cowboy* talde batek behin kontzertu batean. Haiengana joan, eta abeslari famatu baten kanta zela esan zidaten, emanen zidatela haren helbidea». Tom Russell zen abeslari famatu hura, eta liburuan jaso du Garikanok haren kanta, *The Basque*.

> «Testu ederren eta narrazio indartsuen bitartez aurkeztu nahi nuen gaia»
>
> **ASUN GARIKANO**
> Idazlea

Nevadatik Euskal Herrira bueltan, bildutako materiala antolatzea izan zen Garikanoren hurrengo lana. Zailena eta denbora gehien kendu ziona. Testuen egitura zehazterakoan, hala ere, egileak argi izan du hasieratik zer egin nahi zuen. «Ni filologoa naiz, eta literaturazalea. Nire ikuspegia, beraz, ezin da izan historialari edo soziologo batena; nik, liburua osatzeko, testu ederrak bilatu ditut. Hori izan da nire helburua, testu ederren eta narrazio indartsuen bitartez aurkeztu nahi nuen gaia».

Testu eder horiek zer kontatzen duten begiratuz gero, bertze hainbat herritako emigrazio prozesurekin alderatzen ahal da euskaldunena, neurri handi batean. Arrazoia, nagusiki, ekonomikoa izan zen, bertze hainbat herritan bezala. «Gerra ere gertatu zen gero, baina hemendik alde egiteko faktore nagusia dirua izan zen». Ameriketan bizitako esperientziaz hagitz ikuspuntu ezberdina islatzen dute, Garikanoren hitzetan, handik itzuli zirenek, batetik, eta AEBetan gelditu zirenek, bertzetik. «Itzuli zirenen idatziek ikuspuntu ezkorra ematen dute, hango esperientziaren oso ikuspegi txarra; han gelditu zire-

Euskaldun anitzek ostatuak zabaldu zituzten AEBetako Mendebalde Urrunean. Argazkikoa da horietako bat, trenbidearen ondoan. BILL BELKNAP

Hamaika zidor bide berean

Izen-abizenez aipatzen ditu Garikanok Ameriketara joan ziren euskaldun anitz, eta haien historia zehatza zizelkatu du liburuko orrietan. Protagonistek dute hitza.

E. Elizondo

Protagonistei eman die hitza Asun Garikanok *Far Westeko Euskal Herria* liburuan, hango euskaldunen bizipenak kontatzeko. Haiek utzitako testigantzak baliatu ditu testuak osatzeko, bai eta haien ondorengoek ahoz kontatutakoak ere. Hamaika lanetan aritu ziren euskaldunak ageri dira. Artzainak, gurdi gidariak, urre bilatzaileak, ostalariak. «Gogoz egiten zuten lan, baina disfrutatzen ere bazekiten». Euskaldunen arteko bestak, haien bidaiak, haien oroitzapenak eta kontakizunak jaso ditu Garikanok, bide berak hamaika zidor izan zuela erakusteko. Jarraian, horietako zenbait.

Urre bilatzaileak

1848ko urtarrilaren 24an urrea aurkitu zuten Kalifornian, Sutter's Mill izeneko zerrategian. Aurkikuntza horrek hasiera eman zion Gold Rush edo Urre Zoramenari, 1848tik 1955era iraun zen garaiari. Munduko hamaika txokotatik joan zen jendea Kaliforniara, urre bila. Euskaldunak ere izan ziren tartean. Batetik, orduan Hego Amerikan bizi ziren euskaldunak abiatu ziren Kaliforniarantz, 1849an, bertze pioneroekin. Urre bilatzaile haiei, 49koei, *fortyniners* deitu zieten; 49koak, alegia. Juan Miguel Agirre (1813-1897), adibidez, Montevideotik joan zen Kaliforniara. Domingo Ameztoi (1824-1892), berriz, Buenos Airestik abiatu zen urre bila. Baionan jaioa, 14 urterekin hartu zuen Hego Ameriketarako bidea. Zapatagile aritu zen Argentinan, Kaliforniara joatea erabaki zuen arte. San Frantziskon egon zen hasieran, eta handik Tuolumneko eta Calaverako konderrietako meatzeetara joan zen gero. Laster utzi zuen lan hori, abeltzaintzan hasteko.

Hego Amerikatik ailegatu zen Kaliforniara, halaber, Pedro Altube oñatiarra (1827-1916). *Palo Alto* goitizena jarri zioten han. *The New Enciclopedia of the American Western* liburuan Ameriketako *Euskaldunen Aita* izendatu zuten Altube. Bilbon hartu zuen Ameriketara eraman zuen ontzia, 1845ean. Argentina izan zuen lehen helmuga. 1850ean Hego Amerika zeharkatu zuen zaldiz, bertze hainbat euskaldunekin batera, eta Kaliforniara ailegatu zen, urre bila. Garai hartakoen inguruan, ondokoa idatzi zuen Adrien Gachiteguyk, 1955ean: «Urre Zoramena piztu da (…). Hemezortzi euskaldun, Etxart izeneko bat buru dutela, Buenos Aires utzi eta badoaz Kaliforniarantz. Urte eta erdi kostatu zitzaien, lurrez eta urez, urrearen eremuetara heltzea. Abentura nobela zoragarria utzi ahal izango ziguten bidaia egunkaritxo bat izan balute! Besterik ezean, imajinatu egin behar dugu zer izan zen hemezortzi gizon euskaldun haien bizitza, iparralderantz igo eta igo herri beldurgarri bezain ezezagun haietan barrena».

Ellis Island

New Yorkeko Ellis Islandeko Immigrazio Gunetik pasa behar izan zuten AEBetara sartu nahi izan zuten euskaldunek. 1892tik 1954a bitarte, hamabi milioi immigrantetik gora sartu ziren herri horretan ate horretatik. Ontzietan hirugarren mailako ziren bidaiarientzat egindako atea zen hori, lehen eta bigarren mailakoek ez baitzuten handik pasa behar. Hirugarrenekoek bai. Osasun eta paper azterketa egiten zieten han. Lentxo Etxanis mutrikuarra izan zen Ellis Islandetik igaro ziren milaka eta milaka euskaldunetatik bat. Etxanisen familia errentan bizi zen Mendi Beltza baserrian. Gazteak, beraz, ez zuen deus jasotzeko. Halaxe idatzi zuen Ameriketan: nak, oro har, baikorragoak dira». Diru premiak bultzatuta joan, baina denak ez ziren aberastu AEBetan. «Istorio tristeak ere badira, dirurik gabe Euskal Herrira itzultzeko lotsa sentitu eta betiko han gelditu zirenenak. Horrelakoak, hala ere, Argentinan eta Uruguain aurkitu ditut gehiago, AEBetan baino».

Itzultzeko asmorik ez zuenik ere bazen euskaldunen artean. Batez ere emakumeen artean, haiek ere izan baitziren emigrazioaren historian protagonista. «Senarrarekin joaten ziren asko, eta beste zenbait, ostatuetan edo neskame lan egitera. Nolabait, hemen baino askatasun handiagoa aurkitzen zuten han, beste bizimodu bat egiteko aukera, eta ez zuten itzuli nahi. Aurkitu ditudan testigantzen artean bakar batek ere ez zuen itzultzeko asmorik izan. Askotan gertatzen zen senarrak itzuli nahi izatea, eta emazteak ez». Far Westen, gainera, giro berezia aurkitu zutela azpimarratu du Garikanok. «Herri bat altxatzen ari ziren; euskaldunek, beste hainbat tokitako jendearekin, herri bat altxatzen ari zirela sentitu zuten Far Westen».

Hirugarren belaunaldia

Horregatik, liburuarekin Far Westen historia ere kontatzen ari zela sentitu zuen idazleak idaztean, «euskaldunen ikuspuntutik». Eta historia horretan, euskaldunak ez ziren bakarrik artzain izan. «Horrek harritu nau, konturatzeak hamaika gauzatan aritu zirela, artzain ez ezik urre bilatzaile, gurdi gidari, ostatuen jabe eta beste ere izan zirela. Euskaldun izateko hainbat modu aurkitu ditut Nevadan».

Euskal Herritik joan ziren gizon-emakume haien ondorengoak ari dira orain euren sustraiak berreskuratzen. «Lehen belaunaldia gutxi nahasi zen hangoekin; euskaldunek euskaldunen babesa bilatzen zuten, komunitatea osatzen zuten. Hizkuntza, gainera, muga zen, kosta egiten baitzitzaien ingelesa ikastea. Muga hori bigarren belaunaldiarekin apurtu zen. Bigarren belaunaldia integratu egin zen hango gizartean, eskolari esker besteak beste. Hirugarrena, orain, kexu da, aitona-amonei eta gurasoei aurpegiratzen die hemengo kulturarekiko lotura moztu izana».

Horregatik saiatzen dira ahal dutena berreskuratzen, Garikanok nabarmendu duenez. «Dantzen eta kanten bidez, batez ere. Guretzat adierazpen folkloriko huts direnak haientzat askoz ere gehiago dira, ez dira azaleko kontua». AEBetako egungo euskaldunen bestek harreman estua dute aspaldi ailegatu ziren haiek egiten zituzten ospakizunekin. Oraingoentzat, aspaldikoen bizimoduaren gida osatu du Garikanok liburuan.

(Hurrengo orrialdean jarraitzen du)

04 Euskal herritarrak Far Westen

(Aurreko orrialdetik dator)

«Han etorkizunik ez nuen. Baina hemen anaiak neuzkan ardiekin lanean. Jakina, aitaz eta amaz pentsatzen jarri, eta gauza tristea da beren ume guztiak hona etorri izana. Baina aukerarik ez zegoen guretzat Mutrikun».

Hendaian hartu zuen Etxanisek New Yorkera eraman zuen ontzia. Hantxe, Maitia deitu zuen Lekeitioko neska gaztea ezagutu zuen. Harekin egin zuen dantza hirugarren mailako euskaldunek antolatutako bestetako batean. Ameriketan harremanetan jarraitzeko erabakia hartu zuten. Ellis Islanden, hala ere, euskaldunak taldeka banatu zituzten. Etxanis sartu zen AEBetan, baina Maitia Hendaiara bidali zuten bueltan. «Bihotza gaixorik neukan. Ez nekien hemen geratu nahi nuen ere. Han barruan [Ellis Islanden], errenkadan jarritako asto ergel mordoa bagina bezala tratatu gintuzten. Nori eta neska xarmant hari sartzen utzi ez! Adiorik ere ezin izan genion esan», idatzi zuen mutrikuarrak.

Izan zen Ellis Islandetik pasa gabe, paperik gabe, AEBetan sartu zen euskaldunik ere. Horietako bat izan zen Francisco Ziriako, *Frank*. 1911n jaio zen, Arrietan, Bizkaian. New Yorkeko portuan ontzitik salto egin zuen, eta Emilio anaiarekin egin zuen bat. «Nirekin ihes egindako bat edo beste harrapatu egin zuten, baina ni ondo ezkutatuta nengoen hirian. Emiliok lana aurkitu zidan bera ari zen toki berean, platerak garbitzen». Aurreztutako dirua amari bidaltzen zion. Euskal ostatu batean zuen aterpe. Trena hartu, eta Idahora artzain joatea erabaki zuen gero.

«Amona eta Chiquito Chabrie, Benton, 1922an» idatzia darama argazki honek, eta hori da irudiari buruz den azalpen bakarra. COURTESY OF MAYIE MAITIA

Eulalia Ugalde, AEBetan, 1920an. BARINAGA FAMILY ALBUM

Nafarroa Behereko Theresa Laxalt. FAR WESTEKO EUSKAL HERRIA

Pete Agereberri, bere izena duen begiratokian. GEORGE PIPKIN COLLECTION

Pedro Altube oñatiarra, zaldi gainean. CBS

Pete Agereberri

1874. urtean sortu zen Pete Agereberri, Onizepean, Zuberoan. 16 urterekin egin zuen AEBetarako bidaia. Hamaika lanbidetan aritu zen aurrera egin ahal izateko. Pilotari izan zen San Frantziskon, eta San Joaquin ibarrean, berriz, artzain. 2.600 buruko artaldea zaintzen zuen. Lehorteak jo zuen ingurua 1894an, eta Agereberriren nagusiak sosik gabe gelditu ziren. Hamar dolar bertzerik ez zuen jaso hiru urteko lanaren truke.

Meatzean saiatu zen artzain lana galduta, baina ez zuen luze iraun; esnea etxez etxe banatzen aritu zen San Frantziskon, ondoren, Elkora (Nevadara) joatea erabaki zuen arte. Han Pedro eta Bernardo Altuberen arrantxoan egin zuen lan. Ardiak zaintzera itzuli zen handik, Nevadako Fish Creekera. Agereberriren lanbide zerrenda ez zen hor amaitu: gurdi gidaria izan zen gero, bai eta izotz saltzailea ere. Shepherd Canyon Routeko diligentziako azken gidaria izan zen, hain zuzen ere. 1905ean, urrea aurkitu zuen Heriotza Ibarreko Panamint mendietan. Han, Aguereberry Point izeneko begiratokia bada.

Harrisburg Flaten, bere meatzearen ondoan altxatutako etxean bizi izan zen 40 urte luzez, 1945a arte, hil zen arte. Garikanok liburuan jaso duenez, miresten zuen Agereberrik Heriotzaren Ibarreko paisaia, eta eskuz bidea egin zuen meatzetik gain hartaraino, «besteek ere ikuspegi eder hartaz gozatzeko». Han ehortz zezaten nahi zuen, baina horretarako baimenik ez zuten eman, monumentua baitzen 1933tik Heriotzaren Ibarra. Lone Pineko kanposantuan dago Agereberriren hilobia.

Theresa Laxalt eta bertze hainbat emakume

Euskal Herritik Amerikarako bidea egiten lehenak gizonak izan ziren, baina emakumeek laster jarraitu zioten haien bideari. Eulalia Ugalde 1897an jaio zen, Angiozarren (Bergara, Gipuzkoa). 11 urte zituenean hasi zen neskame lanean. Adin nagusira ailegatu zenean, anaiak idatzi zion Idahotik, lana eskaintzeko Mountain Homeko bengoetxeatarren hotelean. Laster hartu zuen Ugaldek erabakia. Paperak prestatu, eta anaiak txartela ordaintzeko bidali behar zion diruaren zain gelditu zen. Baina, Ugaldek jaso beharrean, haren amak hartu zuen anaiak bidalitako dirua. Ugaldek, dena den, ez zuen hartutako erabakia bertan behera utzi, eta Ameriketara joateko dirua aurreztea lortu zuen.

Senarrarekin arrantxoan bizi zen, bertzalde, Theresa Alpetxe, Dominique Laxalten emaztea. Nafarroa Beheretik joan zen AEBetako Mendebalde Urrunera. Han, arrantxoan, Garikanok bere testuan jaso duenez, «ardikanpoan bertan egin behar izaten zituzten lanak emakumeek; alegia, sua kanpoan piztu eta han prestatzen zituzten otorduak, lurrean egindako zuloan erretzen zituzten jakiak, eta errekako ur hotzean garbitzen zituzten arropak». Laxalten senarrak idatzi zuenez, «hormak nahi zituen inguruan, txabola batenak baziren ere».

Senarra dirurik gabe gelditu eta arditara itzuli behar izan zuenean, Theresa Laxalt senarrarekin joan zen mendira, eta 30-40 gizonentzako sukaldari bilakatu zen. Egunean hiru otordu prestatzen zituen. Laxalt Parisko Le Cordon Bleu sukaldaritza eskolan graduatua zen. Hil zenean, *Sweet Promise Land*-eko pasarte bat argitaratu zuen *Nevada State Journal* egunkariak bere orrietan, *Seme baten ordaina bere amari* izenburupean. Testu horretan aipatzen da Laxalt basamortuko txabola utzi eta Carson Cityra joan zela bere lau umeekin. Ostatu batean hasi zen lanean. Robert Laxalt semea halaxe mintzatzen da amari buruz: «(…) Eta adorea behar zuen emakume polit batek bere hanka lirainak zain purpuraz betetzen ikusteko bederatzigarren hilabetearen azken eguna arte zutik irauteagatik, eta haurra izan orduko lanera itzultzeagatik».

Robert Laxaltek hainbat egonaldi egin zituen Euskal Herrian. Eta bisita horietan, hamaika hilerritan izan zen. Garikanok jaso du bisita horietan sentitu zuenari buruz idatzi zuena: «Nire arbasoen milaka belaunaldi jaitsi dira lur honetara. Batzuetan, harrizko pasillo artean nabilela, lurraren usaina igotzen da. Zaharra eta familiarra da, eta berehala dakit lur hori nigan dagoela. Hemen ehortzia izan naiz ehun hilerri txikitan».